

INTSEKTU POLINIZATZAILEAK SUSTATZEKO EGOKIAK DIREN LANDARE-ESPEZIE AUTOKTONOEN UDAL- KATALOGOA



3 SALUD
Y BIENESTAR



11 CIUDADES Y
COMUNIDADES
SOSTENIBLES



15 VIDA
DE ECOSISTEMAS
TERRESTRES



Edukia

SARRERA.....	3
LANDAREAK ETA POLINIZATZAILEAK	4
<i>Anemone nemorosa</i>	6
<i>Bellis perennis</i>	7
<i>Cistus salviifolius</i>	8
<i>Colchicum autumnale</i>	9
<i>Clematis vitalba</i>	10
<i>Crataegus monogyna</i>	11
<i>Digitalis purpurea</i>	12
<i>Erica vagans</i>	13
<i>Ficaria verna</i>	14
<i>Fragaria vesca</i>	15
<i>Iris pseudacorus</i>	16
<i>Lonicera periclymenum</i>	17
<i>Mentha pulegium</i>	18
<i>Oxalis acetosella</i>	19
<i>Papaver rhoeas</i>	20
<i>Potentilla erecta</i>	21
<i>Prunus spinosa</i>	22
<i>Primula veris</i>	23
<i>Rosa canina</i>	24
<i>Sambucus nigra</i>	25
<i>Saponaria officinalis</i>	26
<i>Sedum acre</i>	27
<i>Serapias lingua</i>	28
<i>Taraxacum officinale</i>	29
<i>Trifolium fragiferum</i>	30
<i>Ulex europaeus</i>	31
<i>Veronica beccabunga</i>	32
TERMINOEN GLOSARIOA.....	33
BIBLIOGRAFIA.....	36
ARGAZKIEN KREDITUAK.....	37

Idazketa eta edizioa: Ondoan - José M^a Blanco
Itzulpena: Hedapen Global Services, SL

SARRERA

Klima-aldaketa oso erronka handia izaten ari da planetako espezie guztiontzat. Izan ere, temperaturak igotzen ari direnez eta euria modu irregularrean banatzen denez, espezie askoren ziklo biologikoak aldatzen ari dira, eta, oso denbora gutxian, klima-baldintza berri horietara egokitu beharko dute.

Testuinguru hori erronka da izaki bizidun guztientzat; hirietan, bada egoera zail horrekiko bereziki kalteberak diren animalia txiki batzuk: intsektuak. Haien artean, baliteke landareen polinizazio-prozesuan funtsezko zeregina duten espezie horiek, polinizatzaile deiturikoek, arazo erantsi batzuk izatea. Adibidez, espezie horiek behar-beharrezkoa dute udaberriko susperraldia eta elikagai dituzten loreen agerpena ezin hobeki sinkronizatzea. Klima-aldaketagatik intsektuak neguko babeslekuetatik atera baino lehen loratzen badira landareak, banako asko beharbada hil egingo dira janaririk ezagatik. Arazo hori berez gutxi balitz bezala, polinizatzaile horiek gabe, landare askok ezingo lukete polinizazio-prozesua gauzatu, eta, beraz, aliatu txiki horiek gabe, landareek ere bizirauteko arazo larria izango lukete.

Hala ere, tradizioz, hiriak ez dira izan lekurik atseginenak intsektu polinizatzaile horientzat; giza habitat horretan, gehiago arduratu gara geure erosotasunaz, inguruan dauzkagun gainerako izaki bizidunen erosotasunaz baino, kontuan hartu gabe gure osasuna eta ongizatea aliatu ornogabe txiki horien presentziaren menpe ere badagoela. Hala ere, badira zenbait ekimen abian hiri handietako kutsadura murrizteko eta berdeguneen kopurua handitzeko; horrek, dudarik gabe, gure osasunean eragina du, baina baita animalia txiki eta ezinbesteko horien ongizatean ere. Dena dela, polinizatzaileen ongizatea are gehiago hobetzeko, aurrerapauso bat eman behar dugu, eta, ahal dugun heinean, gure lorategiak, balkoiak eta leihoak intsektuei interesgarriak iruditzen zaizkien landare-espezieekin apaindu behar ditugu. Baina, polinizatzaileei laguntzeaz gain gure hiriak landare-biodibertsitatea sustatzea ere nahi badugu, landare autoktonoak erabili behar ditugu gure balkoi eta lorategiak apaintzeko.

Hori dela eta, gida labur honetan, gure geografiako landararik arruntenetako batzuk bildu dira; guztiak autoktonoak dira, eta, haiek lortzeko, lekutxo bat baino ez zaie utzi behar gure lorategian, lurzoruaren egoerak horretarako aukera emanez gero landare horiek modu espontaneoan agertuko baitira. Hala ere, haietako batzuk (esaterako, *Fragaria vesca*, *Primula veris* eta *Sambucus nigra*) lorezaintza-zentroetan ere badaude; hortaz, halakoetara ere jo daiteke gure balkoi edo jardineretan lehenbailehen landatu nahi izanez gero. Haiek erraz ezagutzeko, haien argazki deskribatzaileak eta ezaugarri nagusien testu argitzaileak jaso dira gida honetan. Landareak deskribatzeko orduan, termino botaniko gehiegi ez erabiltzen ahalegindu gara, eta testuan agertzen direnak glosario txiki batean azaldu ditugu; glosario hori beste erreferentzia batzuekin osa daiteke, hala nola bibliografian jasotakoekin.

LANDAREAK ETA POLINIZATZAILEAK

Intsektu polinizatzaileak elikatzeko egokiak diren landare-espezie ugarien artean, hogei espezie baino gehiagoko lagin txiki bat hartu da, espezie belarkarak eta zuhaixken tamaina dutenak barne. Halaber, ur-eskakizun oso txikiak dituzten batzuk jaso dira, baita bizirauteko ur ugari egotearen menpe dauden beste espezie batzuk ere. Horri guztiari esker, ahalik eta espezie askotarikoenak egongo dira gidan, eta, gure lorategi edo balkoiaren egoera edozein dela ere, gure hiri-inguruetan dabiltzan intsektu polinizatzaileen gustuko landare-espezieak landatzeko edo ereiteko aukerak izango ditugu.

Espezie horiek sartuta, landare autoktonoen gure lorategira edo txoko txikira etorri ahal izango diren intsektuen artean, **koleopteroen** (kakalardoak), **himenopteroen** (erleak, liztorrak, erlastarrak), **lepidopteroen** (eguneko tximeletak edo *rapalozeroak*, eta gauekoak edo *heterozeroak*) edo **dipteroen** (euliak) ordenak daude.

Jarraian, gaingiroki aurkeztuko da aipatutako intsektu taldeetako bakoitza.



Kakalardoak (*Coleoptera* ordena) polinizatzaile talde oso zahar bat da, eta zenbait espezie ezagun hartzen ditu barnean; besteak beste, marigorriak, gurgurioak, pipiak eta adarluzeak.

Planetako habitat gehienetan aurki ditzakegu koleopteroak. Elikadura orekatua dute, eta ustekabean polinizatu ohi dute, loreetara jatera joaten direnean; izan ere, ez dira polinizatzaile onak izaten, polenez eta lore zatiz elika baitaitezke.



Intsektuen ordena horretan, erleak, erlastarrak, inurriak eta liztorrak daude. Landare gehienen polinizatzaile nagusiak dira, eta ekosistema gehienetan daude.

Espezie askok polena edo nektarra jaten dute beren bizi-zikloko faseren batean; hortaz, egokitzapen espezifikoak izan dituzte bilketa-lanerako, hala nola polen-saskia, polena biltzeko eta lekualdatzeko.



Euliak (*Diptera* ordena) dira loreetan agertzen den bigarren talde ohikoena; nagusiki, *Syrphidae*, *Bombyliidae* eta *Tachinidae* familietakoek bisitatzen dituzte loreak.

Intsektu hauek mintzezko hegala dituzte, baita bi egitura estu eta txiki ere, halterio izenekoak, hegan egitean egonkortasuna mantentzen laguntzeko. Espezie batzuk nektarrez eta polenez elikatzeko joaten dira loreetara, eta beste batzuk, berriz, loreek limurtzen dituzte, intsektuentzako bikotekide potentzialen antza baitute; ondorioz, intsektu arduragabe horiek, beren gogoz kontra, polinizazio-prozesuan laguntzen diete landareei, baina, eskuarki, ez dute elikagairik jasotzen trukean.



Tximeleten barruan, taxon nektarjaleak nagusiki *Sphingidae*, *Noctuidae* eta *Geometridae* sits-familietan daude, baita *Hesperiidae* eta *Papilionidae* tximeleta-familietan ere.

Lepidoptero guztiek espiritronpa bat osatzen duen aho-aparatu bat dute, eta, hari esker, loreetako nektarra edo gatz mineral diluituak xurga ditzakete. Haien gorputza ezkatatzen beteta egon ohi denez, lore batera joaten direnean polena itsasten zaie, eta hurrena ukitzen dituzten loreetan uzten dute. Horrela, gehien gustatzen zaizkien landareen polinizatzaile eraginkor bihurtzen dira; landare horiek aldatu egiten dira espezie bakoitzaren arabera.



Anemone nemorosa

Euskara: Baso-anemona

Gaztelania: Nemorosa, anémone de los bosques

Familia: *Ranunculaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, eta errizoma arrea du; errizomaren muturretik hosto bat edo zurtoin bat ateratzen da.

Lorea zuria edo arrosa da, hermafrodita, eta, eskuarki, bakarrik agertu ohi da zurtoinaren bukaeran. **Hosto** peziolatuak ditu, eskuarki zatituak. **Fruitua** edo infruteszentzia poliakenioa da, eta globo-itxurakoa; zintzilik dago, eta 15-30 akenio oboide edo eliptiko ditu, iletsuak eta punta motzekoak.

Lurzoru azidoko oihanpeetan hazten da; beraz, urki, haritz eta pagoen ondoan egoten da, baina txilardi eta larre natural hezeetan ere ager daiteke, itsas mailatik 2.000 m-raino. Otsailetik maiatzera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Loreak ez du nektarrik, baina euli eta koleopteroek ernaltzen dute, eta polena lortzen dute landaretik, elikatzeko.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Gauzez, eta egun ilunetan, loreak alde batera makurtzen dira, eta itxi egiten dira; eguzkia ateratzean, berriro irekitzen dira.

Akenioak luzakin oliotsu bat du (eleosoma), eta inurriek jaten dute; haziaren gainerakoa lurpean ezkutatuta geratzen da, eta, beraz, intsektu horiek zabaltzen ere laguntzen diote landare honi.

Substantzia toxikoak ditu (anemonina eta protoanemonina); hortaz, ez da aholkatzen haurrak dabiltzan lorategietan erabiltzea.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Dirudienez, lore apaingarri gisa erabili zen lorategi erromatarretan.

Informazio
gehiago:

https://www.asturnatura.com/especie/anemone-nemorosa?expand_article=1
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/1921912?locale=eu>
<https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/8072>
<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=anemona>
https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Anemone_nemorosa.htm

Bellis perennis

Euskara: Pitxilora

Gaztelania: Margarita, Chirivita

Familia: *Compositae (Asteraceae)*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare hau oso zabalduta dago, baina leku idorrek saihesten ditu. **Hostoek** erroseta bat dute oinarrian; oxkardunak edo horzdunak dira, eta nerbio nagusi bat dute. Kapituluak (infloreszentziak) bakartiak eta erradiatuak dira, eta morfologia askotako loreak dituzte, barruan eta kanpoan. Kanpoko **loreek** ligula edo mihia dute, eta zuriak edo purpurak dira; barrukoek, berriz, hodi-forma dute, eta horiak dira. **Fruituak** akenioak dira, eta ez dute kardilaunik.

Belardietan eta hezegune antropizatueta egoten da, 1.800 m-raino. Otsailetik uztaileira loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Besteak beste, etxeko erleek eta *Sirphidae* familiako dipteroren batek bisita dezakete espezie hau.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Kantabrian bada esaera bat: "la flor de Alejandría, roja de noche y blanca de día" [txiribita, gauzez gorria eta egunez zuria]. Horrek esan nahi du lore-buruetako kanpoko loreak fotosentikorrek direla, eta, beraz, itxi egiten dira iluntzean.

Loreetako kapituluak besteak beste antoxantina dute, eta horregatik dute kolorazio horia.

Haren hostoak entsaladan jan daitezke, txikoria-belarrarekin (*Taraxacum officinale*) eta mihiluarekin (*Foeniculum vulgare*) nahasita.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Airean geratzen den zatia lore-zentroak egiteko erabiltzen da. Era berean, asko erabiltzen da landare apaingarri gisa, soropilarekin batera, bere koloreengatik eta erresistentziagatik.

Informazio
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/10797>

<https://ojs.ehu.eus/index.php/ekaia/article/view/24497/22243>

https://www.researchgate.net/profile/Jose-Blanco-Salas/publication/326689796_Bellis_perennis_L/links/5b5f2cd4a6fdccf0b201518b/Bellis-perennis-L.pdf

<http://www.lepidopteros.com/2011/10/bellis-perennis-margarita/>

Cistus salviifolius

Euskara: Iñar zurij; Lobera-belar
Gaztelania: Jaguarzo, Jaguarzo morisco

Familia: *Cistaceae*

Europako Zerrenda Gorria: kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Babes-maila: Habitaten Zuzentaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka txiki bat da; adar gazteak ditu, eta **hosto** aromatiko obalatuak, ile izarkaraz estaliak. **Lore**-kanduak ile izarkara lodiak ditu. **Fruitua** globo-itxurako kapsula pentagonal da, arinki pubeszentea. Lurzoru hareatsu, harritsu, silizeo eta buztintsuetan agertzen da, baita pinudi, artelatz-baso eta artadietan ere. Ondo egokitzen da baldintza xerikoetara (lurzoruaren lehortea). Martxotik ekainera loratzen da.



BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Loreek polen asko sortzen dute (erlezaintza-intereseko landarea da), eta erleek erabiltzen dute, baina baita beste intsektu batzuek ere, elikatzeko; esaterako, kakalardoek eta inurriek.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Lehorgarri gisa eta tearen ordezkoko gisa erabili dira haren hostoak. Ganadua elikatzeko biltzen dira haren adarrak, bereziki animalia ukuiluratuak elikatzeko, bai neguan, bai soroan janaria urri denean.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Espezia hau heskaiak sortzeko erabil daiteke, bakarrik edo beste espezie autoktono batzuekin konbinatuta. Oso gutxi ureztatu behar diren zonak behar ditu, edo ondo drainatutako lurretan daudenak. Lurzorua gehiegi ureztatzen bada edo emankorregia bada, landareek ez dute sendotasunik izango.


Informazio
gehiago:

<https://biobilbao.bilbao.eus/wp-content/uploads/2018/02/Diagnostico-Biodiversidad-Bilbao.pdf>
<https://www.aranzadi.eus/fileadmin/docs/Munibe/2005041048CN.pdf>
<https://spain.inaturalist.org/taxa/76365-Cistus-salviifolius>
https://www.researchgate.net/profile/Jose-Ramon-Vallejo/publication/325428817_Cistus_salviifolius_L_En_Inventario_Espanol_de_los_Conocimientos_Tradicionales_Relativos_a_la_Biodiversidad_Fase_II_Tomo_2/links/5b0da0180f7e9b1ed7011a6d/Cistus-salviifolius-L-En-Inventario-Espanol-de-los-Conocimientos-Tradicionales-Relativos-a-la-Biodiversidad-Fase-II-Tomo-2.pdf
<http://www.carex.cat/es/vivers-carex/catalogo/cistus-salviifolius-.aspx>

Colchicum autumnale

Euskara: Azpelar, kolkiko
Gaztelania: Cólquico, quitameriendas
Familia: Colchicaceae

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, eta lur azpiko tuberibulbo sakonetik garatzen da. Tuberibulbo horretatik sortzen dira loreak (udan/udazkenean) eta **hosto** fotosintetikoak (udaberrian).

Loreak lurpean sakon sartuta dauka oinarria, eta, behin polinizatuta, zimeldu egiten da. **Fruitua** kapsula papirazeoa da (perikarpoa lehorra da, eta paperaren antzeko sendotasuna du), eta gaztaina-kolore argiko hazi ugari ditu. Zurtoin hostoduna lehortu egiten da haziak sakabanatu ondoren, eta, udazkenean, lore berriak sortuko dira, tuberibulboaren oinarritik.

Lurzoru sakon eta freskoko belardietan garatzen da. Udaren amaieran eta udazkenean loratzen da, eta haren fruituak hurrengo urteko udaberrian heltzen dira.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Sirfidoak (*Syrphidae*) diptero-familia bat dira, eta haien helduek loreetako nektarra xurgatzen dute. Erle eta liztor batzuen antza dute, eta baliteke haiekin nahastea.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Haren haziak eta erraboila toxikoak dira, alkaloide bat baitu, koltxizina; hortaz, ez da aholkatzen haurrak dabiltzan lorategietan erabiltzea.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lorea arrosa lila da, eta azafraiairen antza du, sei lorezilekin. Apaingarri gisa oso ederra denez, lorategiak apaintzeko erabiltzen da.

Informazio
gehiago:

<https://www.ehu.eus/documents/1686888/3913390/71.+Colchicum+autumnale.pdf>
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/20_183_07_Colchicum.pdf
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/1909512>
<https://identify.plantnet.org/es/k-world-flora/species/Colchicum%20autumnale%20L./data>

Clematis vitalba

Euskara:	Aihen zuria, autina, metu, ayen-bedarra, ezkerayen, aixeneskerra, hurukagei	Familia:	<i>Ranunculaceae</i>
Gaztelania:	Clemátide, Vidarra, vizarra, bidaquera		
	Europako Zerrenda Gorria: -		
Babes-maila:	139/2011 ED: -		
	Habitaten Zuzentaraua: -		
	Euskadi: -		



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare igokaria da, hostogalkorra, eta beste landare batzuk erabiltzen ditu eusteko. Haren **hostoak** aurkakoak eta peziolatuak dira, eta foliolo obatuak dituzte, oinarrian moztuak, osoak edo oxkardunak/horzduak. **Loreak** zimetan agertzen dira; tentetuak eta erregularrak dira, zuri berdexkak. **Fruituak** akenio elipsoidalak eta pubeszentek dira. Baso eta heskaletan egoten da, 1.500 m-raino. Erruz loratzen da, ekainetik abuztura.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezie honek balio nutrizionala du sits batzuen beldarrentzat, eta haren loreek mota askotako intsektu polinizatzaileak erakartzen dituzte; besteak beste, erleak eta euli batzuk.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Gosete-garaian, arrautzopilean edo nahaskian jan ziren landare honen kimu beratzak. Zenbait tokitan, oraindik biltzen da, neguan bazka lehor gisa erabiltzeko, untxiak elikatzeko, baina baita behiak eta astoak ere.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Batzuetan, lorategietan hazten uzten zaio, igokari apaingarri gisa, hormak estaltzeko edo itzala edukitzeko.

Mota guztietako substratuak onartzen ditu, baina nahiago ditu lurzoru sakonak. Ez ditu behar lurzoru bereziki drainatzaileak. Izurri eta gaixotasunekiko oso erresistentea da. Ingurumena leheneratzeko proiektuetan erabiltzen da.

Informazio
gehiago:

<https://www.gbif.org/es/species/3033558>
<http://www.carex.cat/es/vivers-carex/catalogo/clematis-vitalba-.aspx>
<https://www.floravascular.com/index.php?spp=Clematis%20vitalba>

Crataegus monogyna

Euskara: Elorri, elorri zuri, arantzuri
Gaztelania: Espino albar, majuelo

Familia: *Rosaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka edo zuhaitz txiki bat da, hostogalkorra, azal lau eta grisaxkakoa, eta adaburu biribilekoa. Adar gazteetan, eskuarki arantzak agertzen dira. **Hostoek** pezioloa dute, eta 1 eta 3 lobulu pare alboetan; horzdunak dira goitik, kuneatuak oinarrian, eta ile gehiago edo gutxiago dute. Infloreszentziak sortatan agertzen dira, eta **loreek** petalo zuriak edo apur bat koloreztatuak dituzte. **Fruitua** pomo bat da, globo-itxurakoa, eta hezurduna.

Basoko soilgune eta ingurukietan agertzen da, edo heskai, sakan, sasitza eta arantzadietan; nahiago ditu lurzoru sakon eta freskoak, eta 2.000 m-an dauden eremuetara ere irits daiteke. Martxotik uztaileira loratzen da



BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Eriogaster catax tximeletaren larbaren elikagaia da. Era berean, *Aporia crataegi* (elorri zuriko tximeleta) tximeletak ere jaten du espezie hau.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Basabarazki gisa erabili dira kimuak, zurtoinak eta hosto beratzak.

Tradizioz, haren zura su-egur gisa erabili da, berotze-ahalmen handia baitu, eta, horrez gain, beste gauza askotarako ere baliatu da, hala nola erregai gisa, ogia egiteko labeak berotzeko.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lursailen mugetan uzten ziren elorriak, heskaiak osatzeko, oso garrantzitsuak baitira faunarako. Ondo jasaten dute inausketa, eta ganadua haren itzalean babesten da.

Lore eta fruitu ederrak dituenaz, landare apaingarri gisa hazi da, eta bonsai gisa ere erabiltzen da.

Informazio
gehiago:

https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/Crataegus_monogyna_tcm30-200369.pdf

https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/iect_crataegus_monogyna_tcm30-164120.pdf

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/14335>

https://www.euskadi.eus/web01-a2lurhiz/es/contenidos/termino/_c01735/eu_e_1261/e1261.html

Digitalis purpurea

Euskara: Kuku-fraka
Gaztelania: Digital, dedalera

Familia: *Scrophulariaceae*
(*Plantaginaceae*)

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare belarkara da, iraunkorra edo bi urtez behingoa, batzuetan oinarri zurkarakoa, eta ile glanduladunekoa. Haren **hostoak** txandakakoak, eliptikoak, krenulatuak edo horzdunak dira. Luku gisako infloreszentzia bereizgarria du: **loreek** bost sepalo zertxobait desberdin dituzte, eta sepalo horiek tutu-formako egitura arrosa-purpura osatzen dute, barruan orban purpura handikoa; goiko ezpaina osoa edo muxarratua da, eta behekoak hiru lobulu zabal eta biribil ditu. Kapsula gisako **fruitua** du, oboidea, eta, amaieran, estilo luze bat.

Silizikola da, eta granito, arbel eta kuartzita gainean bizi da, betelanetan eta basoetako soilguneetan, 2.900 m-raino. Apiriletik irailera loratzen da, eta, batzuetan, azaroan ere bai.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Europako mendien inguruan, landare ezti-emaille garrantzitsutzat jotzen da, erleak maiz joaten baitzaizkio, bere nektarragatik eta polenagatik. *Bombus* generoko erlastarrek ere elikatzen erabil ditzakete haren loreak.

Digitalis generoko espezieak *Melitaea nevadensis* (galtzagorri maralodia) tximeleta-espeziearen elikagaia da.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Landarea eta haren loreak toxiko samarrak dira irentsiz gero, bai gizakientzat, bai ganaduarentzat; hortaz, lorezaintzan erabiltzen denean, haurrentzat arriskutsua ez den tokietara mugatu behar da.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Oso lore deigarriak ditu; hori dela eta, apaingarri gisa hazten da lorategietan. Barietate batzuek kolore desberdinetako loreak dituzte (zuria, arrosa, horia, gorria).

Informazio
gehiago:

Ezagutza tradizionalak

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/1918925>

https://www.euskadi.eus/web01-a2lurhiz/es/contenidos/termino/ c03633/eu_k_3206/k3206.html

[https://www.researchgate.net/profile/Jose-Ramon-](https://www.researchgate.net/profile/Jose-Ramon-Vallejo/publication/325336030_Digitalis_purpurea_L_En_Inventario_Espanol_de_los_Conocimientos_Tradicio)

[nales_Relativos_a_la_Biodiversidad_Fase_II_Tomo_2/links/5b069f41aca2725783d8f39f/Digitalis-purpurea-L-En-Inventario-Espanol-de-los-Conocimientos-Tradiciones-Relativos-a-la-Biodiversidad-Fase-II-Tomo-2.pdf](https://www.researchgate.net/profile/Jose-Ramon-Vallejo/publication/325336030_Digitalis_purpurea_L_En_Inventario_Espanol_de_los_Conocimientos_Tradicionales_Relativos_a_la_Biodiversidad_Fase_II_Tomo_2/links/5b069f41aca2725783d8f39f/Digitalis-purpurea-L-En-Inventario-Espanol-de-los-Conocimientos-Tradiciones-Relativos-a-la-Biodiversidad-Fase-II-Tomo-2.pdf)

Erica vagans

Euskara: Iñarra, Aiñarra burusoila
Gaztelania: Brezo

Familia: *Ericaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentaraua: I. eranskina
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka txiki bat da; haren zurtoinak kremakolorekoak dira gaztetan, eta gorriak heldutan. **Hostoak** bertizilotan banatzen dira; gainaldea berde distiratsua da, eta azpialdea, berri, zurixka. Hain bihurritua dute ertza, ezen bi ile-zerrenda zurixka txiki baino ez baitira ikusten nerbio nagusian. **Loreak** adarren goiko aldean agertzen dira, eta infloreszentziak osatzen dituzte; loreak hostoekin txandakatzen dira; korola 4 petalo soldatuk osatzen dute, eta kanpai-formakoa da, arrosa, lila edo zuria.

Fruitua globo-itxurako kapsula bat da, tetragonala eta glabroa. Ekainetik irailera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Landare ezti-emailea da; erleak nektar eta polen bila joaten dira haren loreetara.

Era berean, elikatzeko erabiltzen dute landare hau *Cupido argiades* (kupido tantagorria) tximeletak, Euskadi osoan zabalduak, eta *Plebejus argus* (bitxiurdin ezpoiduna) tximeletak.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Landare honi *Erica multiflora* ere esaten zaio, eta beste espezie batzuek baino askoz ere lore gehiago dituelako bereizten da; lore horiek arrosak edo moreak dira.

Tradizioz, sendabelar gisa erabili da, batez ere airean dagoen zatia, egosita, hezueria-krisi puntualetarako, baita erregai gisa ere.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Sasietan eta baso soilduetan agertzen da; hortaz, heskaiak eta lurzati-itxiturak egiteko erabil daiteke. Askok erabiltzen da lorezaintzan, erruz loratzen delako.

Informazio
gehiago:

https://www.navarra.es/mapacultivos/htm/sp_ericavagans.htm
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/4101834>
https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Erica_vagans.htm
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/04_074_01_Erica.pdf
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/826-ericavagans/usos-tradicionales>

Ficaria verna

Euskara: Korradu-belar
Gaztelania: Celidonia menor

Familia: *Ranunculaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare bizikorra da; sustrai batzuk lodiak eta fusiformeak ditu, eta beste batzuk, berriz, haritsuak. **Hostoak** bakunak dira, obatu-erreniformeak, eta ertza osoa, horzduna edo krenatua dute; gainaldea berde distiratsua dute, eta azpialdea, berriz, matea. **Loreak** kanduetan banatzen dira, eta petaloak hori distiratsuak dira, batzuetan tonu gorriaren batekin. Lorezil dezente ditu. **Fruitua** poliakenio bat da.

Gune hezeetan bizi da; esaterako, ibar-basoetan, basoetan, belardietan edo ubide-ertzetan. Itsas mailatik 2.000 m-raino agertzen da. Urtarriletik ekainera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Episyrphus balteatus eulia *Syrphidae* familiako espezie bat da; landare-zorritz elikatzen da, eta, haien bila, landare honetara iristen da.

Erleek ere erabil dezakete landare hau, elikatzeko, baita *Meliscaeva auricollis* dipteroak ere; azken honek ere bisitatu ohi du espezie hau, eta hura polinizatzen laguntzen du.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Ultzerak tratatzeko erabili da, kanpo-aplikazioarekin. Udaberrian, hosto gazteak eltzekarietan edo entsaladan erabiltzen dira, baina, fruitua ematean, pozoitsu bihurtzen dira; hortaz, ez erabiltzea gomendatzen da.

Sustrai- eta zurtoin-estraktua kosmetikan erabiltzen da, azal-egokitzailerako gisa.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Ahalmen kolonizatzaile handia du; hortaz, larredi batetik zabal daiteke, eta dentsitate handi samarreko tapizatu bat sortu.

Informazio
gehiago:

https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Ficaria_verna.htm
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/01_036_17_Ranunculus.pdf
<https://www.gbif.org/es/species/9094061>
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/1916492>
<https://spain.inaturalist.org/taxa/204321-Ficaria-verna>
<https://hiztegia.labayru.eus/emaitza/LH/all/celidonia/2488943?locale=es>

Fragaria vesca

Euskara: Marrubi, mailuki, marrubi, mailubi, maguri, arrega, mazura. Familia: *Rosaceae*
Gaztelania: Fresa silvestre

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, errizomaduna; estoloi horizontal luzeak ditu, eta estoloi horiek adabegietan sustraitzen dira. Haren **zurtoinak** tente edo gorantz begira daude, eta zertxobait iletuak dira. **Hostoak** erroseta basaletan banatzen dira, eta peziolo eta ile luzeak dituzte, hiru foliolokoak. **Loreek** bost petalo zuri dituzte. **Fruitua** (marrubia) lore-errezeptakulua loditzearen ondorioa da, eta gainean dituen puntu txikiak dira benetako fruituak (akenioak).

Baso hezeetako soilguneetan eta muga, belardi eta ezponda itzaltsuetan egoten da, 2.000 m-raino.

Martxotik abuztura loratzen da, eta maiatzetik irailera ematen du fruitua.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Agente polinizatzaile ohikoenak erleak eta dipteroak dira, nahiz eta badiren lorearen nektarraz elika daitezkeen zenbait inurri-espezie ere, polinizatzen lagundu gabe.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Basamarrubia historiaurretik kontsumitzen da, aurkikuntza arkeologiko ugari adierazten duten bezala; izan ere, toki askotan kontsumitzen da marrubia. Nahiz eta landatutako espezieak baino marrubi txikiagoak dauzkan, hauen zaporea handiagoa da.

Behinola, hezueriari aurre egiteko, Garagartzan (Gipuzkoa) espezie honen sustraiak egosi eta hartzen ziren.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Badago espezie exotiko inbaditzaile bat, *Duchesnea indica* (*Potentilla indica*, *Fragaria indica*), eta espezie honen antz handia du; hark ere fruitu jangarria du, baina zapore gutxikoa.

Informazio
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/4085397>
<https://spain.inaturalist.org/taxa/50298-Fragaria-vesca>
https://www.miteco.gob.es/content/dam/mitco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/ict_2018_tomo1web_tcm30-448312.pdf
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/06_087_10%20Duchesnea.pdf
<https://hiztegia.labayru.eus/emaitza/LH/all/fresa/2496768?locale=es>

Iris pseudacorus

Euskara: Lirio hori, lirio arrunt

Gaztelania: Lirio amarillo, acaro bastardo.

Familia: *Iridaceae*

Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)

139/2011 ED: -

Habitaten Zuzentzaraua: -

Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare helofitoa da; errizoma oso adarkatua du, sustrai haritsu eta malgu ugarirekin. **Zurtoinak** oso adarkatuta daude goiko aldean. **Hosto** basalak 60 cm-ra irits daitezke, eta kaulinarrak, berriz, laburragoak dira. **Loreak** horiak dira, eta infloreszentzian banatzen dira. **Fruitua** kapsula azpizilindrikoetan dator, eta hazi arreak ditu. Belaze hezeetan, ubideen ertzetan, ihitokietan edo lezkadietan kokatzen da, altuera txikian. Martxotik ekainera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Oxythyrea funesta koleopteroak espezie hau polinizatzen laguntzen du.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Haren errizomek taninoak dituzte; hortaz, larruak ontzeko eta zauriak sendatzeko erabili ziren. Nahiz eta nagusiki landare urtarra izan, errizomek aldi lehor luzeetan biziraun dezakete.

Espezie hau uren bioerremediazioko prozesuetan erabil daiteke, sustraieretatik metal astunak xurgatzeko gaitasuna baitu.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Beste *Iris* batzuek ez bezala, lore hori-horiak ditu, eta infloreszentzia oso ikusgarrietan agertzen dira. Oso gustukoa da lorezaintzan, hezetasun handiko eremuetan erabiltzeko, eta erraz samar kolonizatzen du, bere errizomari esker.

Informazio
gehiago:

http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/20_185_03_Limniris.pdf

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12612>

<https://wastemagazine.es/irispseudacorus.htm>

<https://spain.inaturalist.org/photos/132791736>

Lonicera periclymenum

Euskara: Jaungoikoaren atzamarrak, jesu-kristoren atzamarrak, jesu kristoren eskua

Familia: *Caprifoliaceae*

Gaztelania: Madreselva

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Xirmendu-antzeko zuhaixka igokaria da, eta aurkako **hostoak** ditu, edo hosto obatu edo lantzeolatuak, iletsuak, laburki peziolatuak edo eseriak. **Loreak** irregularrak dira, eta glomerulu terminal kandudunetan agertzen dira. **Lore**-korolak tutu-forma du, luzea eta estua, bi ezpainekoa: goiko ezpainak lau lobulu ditu, eta behekoa, berriz, osoa da, zuria edo arrosa. **Fruitua** baia gorrixka bat da.

Baso hostogorretan eta ibarbasoetan egoten da, 50 eta 1.800 m artean.

Maiatzetik uztailean loratzen da, eta uztailetik urrira ematen du fruitua.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Euphydryas aurinia (uhingorria) eta *Limenitis camilla* (lamia lerrobikoitza) tximeletek jaten dute landare hau.

Halaber, erleak eta beste intsektu polinizatzaile batzuk erakar ditzake; esaterako, esfingidoak (*Sphingidae*), zeinek nektarra jan baitezakete.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Zenbait tokitan, jakina da haren fruituak toxikoak direla.

Haren adarrak saskiak egiteko erabili ziren Europako mendietan.

Atxapar honen alderdi deigarrienetako bat haren lurrin sarkor eta atsegina da.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Atxapar-espezia hau baratze eta lorategietan hazi daiteke, apaingarri gisa, haren loreen aroma atseginagatik.

Informazio
gehiago:

http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/15_155_01_Lonicera.pdf
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16414>
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/mariposas_diurnas/es_def/adjuntos/Libro-Castellano.pdf

Mentha pulegium

Euskara: Txortalo

Gaztelania: Poleo, poleo menta

Familia: *Labiatae (Lamiaceae)*

Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)

139/2011 ED: -

Habitaten Zuzentzaraua: -

Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare belarkara iraunkorra eta aromatikoa da; zurtoinak lau angelukoak dira, eta haietatik estoloiak sor daitezke. **Hostoak** aurkakoak dira, laburki peziolatuak eta eliptikoak, arinki zerradunak, zorrotzak eta ile gehiagokoak edo gutxiagokoak. **Loreak** buruxkatan (sasiburuxkatan) jarritako globo-itxurako bertizilastro gisako **infloreszentzia** agertzen dira. **Loreak** pentameroak dira; kaliza hodi-formakoa da, eta hortzak ditu, eta korola arrosa da. **Fruitu** gaztaina-kolore argikoa da.

Larredi eta belazeetan, eta hezeguneetan bizi da, itsas mailatik 2.000 m-raino. Maiatzetik azarora loratzen da

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Landare honen loreak erakargarriak dira zenbait erle-espezierentzat.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Zenbait janari-prestakin ontzeko erabiltzen dira hostoak. Egosita, askotariko gaitz digestiboak tratatzeko erabiltzen da.

Antzina, erlekumeak erakartzeko, txortaloarekin eta beste landare aromatiko batzuekin igurzten ziren erlauntzak. Intsektu jakin batzuk uxatzeko ere erabili da (adibidez, euliak, eltxoak, arkakusoak, etab.).

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Landare apaingarri gisa hazten da baratze eta lorategietan (oso erraz hazten da ontzi eta eremu txikietan), eta sortak osatzeko eta etxeei usaina emateko erabiltzen da, edo loreontzietan jartzen da, landare lehorrez egindako apaingarri gisa.

Informazio
gehiago:

https://www.researchgate.net/profile/Guillermo-Benitez-2/publication/271731847_Mentha_pulegium_L/links/54d09bcf0cf20323c217f77f/Mentha-pulegium-L.pdf
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11843>
https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Mentha_pulegium.htm

Oxalis acetosella

Euskara: Belar-garratz, hiruorri, matxin garratz
Gaztelania: Acederilla, aleluya

Familia: *Oxalidaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Errizoma adarkatua duen belarra. Haren **hostoak** trifoliatuak dira, erroseta basalean jarriak; foliolo obkordatuak dituzte, eta peziolo luze eta iletsuak. **Loreak** bakarka agertzen dira, eta kandu luzeak dituzte; bost petalo dituzte, libreak eta zuriak, eta nerbio purpurak edo morexkak. **Fruitua** kapsula oboidea da, eta, heldzean, indarrez kanporatzen ditu gaztaina-koloreko haziak. Baso hostogalkor heze eta itzaltsuetan hazten da (esaterako, pagadiak eta hariztiak), substratu azidoen gainean, 2.100 m-raino.

Martxotik maiatzera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezia honek marka bisual edo «ezti-gidari» oso deigarriak ditu, eta marka horiek intsektu polinizatzaileak erakartzen dituzte (esaterako, erleak eta beste intsektu batzuk). Intsektuek loreak bisitatzen dituzte, eta polena itsasten zaie.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Antzina, entsaladan erabiltzen ziren hostoak (adibidez, Bizkaian), baina, batez ere, gordinik kontsumitzen ziren mendian, janaurreko gisa.

Fitoterapiari, hostoak erabili izan dira, freskoak edo lehorrak, potasio oxalatoa eta C bitamina baitituzte.

Ezagunenak udaberriko lore zuriak dira, zeinak intsektuek polinizatzen baitituzte. Hala ere, udan eta udazkenean, lore txiki batzuk agertzen dira, eta beren kabuz polinizatzen dira (autopolinizazioa).

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lore asko ateratzen zaizkio, eta oso ikusgarriak, hein handi batean espezie honek kolonizazio-ahalmen handia duelako, baldintzak egokiak badira.

Informazio
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11956>
https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/ict_2018_tomo3web_tcm30-448314.pdf
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/09_124_01_Oxalis.pdf
<http://www.lepidopteros.com/2011/10/oxalis-acetosella-acederilla/>
https://conecte.es/media/com_concibe/files/Oxalis%20acetosella%20Lpdf

Papaver rhoeas

Euskara: Lo-belar, urde-mutur, mitxoleta
Gaztelania: Amapola

Familia: *Papaveraceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare belarkara, urterokoa; zurtoinak tente daude, eta, oro har, ile gogorrak dituzte. **Hostoak** txandakakoak dira, arinki horzdunak, gehienak basalak eta zertxobait peziolatuak; goikoak gutxiago dira, eseriak eta txikiagoak. **Loreak** modu isolatuan agertzen dira, kandu luzeen gainean; 4 petalo handi dituzte, gorriak, eta, askotan, orban beltz bat dute oinarrian. **Fruitua** kapsula ia esferiko bat da, zabalagoa puntan, goian disko lautu bat duela; disko horretan, hazi arre erreniforme eta erretikulatuak agertzen dira. Espezie erruderal eta sorotarra da, ohikoa zereal-soro landuetan, lugorrietan eta bide-ertzetan, itsas mailatik 1.900 m-raino. Otsailetik uztailera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezie honen intsektu polinizatzaile nagusiak erleak dira; haren kolore biziengatik eta nektarragatik bisitatzen dute.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Penintsulako zenbait tokitan, historik beratsenak kontsumitu ohi dira, baina, haiek kontsumitu aurretik, ondo garbitu behar dira, ukitu mikatza izateko. Askotan, entsaladan jaten dira, bakarrik edo beste landare batzuekin batera. Egosita edo sueztituta ere kontsumitu daitezke.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Maiz, belar txartzat jotzen da, baina lorategi txikietan haztea ere ez da arraroa, erruz eta modu ikusgarrian loratzen delako.

Informazio
gehiago: <https://www.ehu.eus/documents/1686888/3913390/13.+Papaver+rhoeas.pdf>
https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/lect_papaver_rhoeas_tcm30-164116.pdf
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/01_038_01_Papaver.pdf

Potentilla erecta

Euskara: Zazporri

Gaztelania: Tormentilla

Familia: *Rosaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da; errizoma laburra eta tuberkuluduna du, barrualde gorriakoa. Urtero, **hosto** konposatuko erroseta bat sortzen du; hosto horien axiletatik adar mehe eta adarkatuak sortzen dira, errosetakoen antzeko hostoekin, baina ia eseriak. **Loreak** horiak, hermafroditak eta tatrameroak dira, eta infloreszentzia zimosoak osatzen dituzte. **Fruitua** poliakenio bat da (akenio zimurtsua).

Txilardi, larredi eta baso soilduetan egoten da, lurzoru azido eta heze samarren gainean.

Udaberritik udazkenaren hasierara arte loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Ettxeko erleak bisitatzen du, eta, bestetik, *Brenthis ino* (ino sorgina) tximeletak jaten du. *Lycaena alciphron* (gorringo menditarra) tximeletak ere bisitatzen du.

Bestalde, dirudienez, oso espezie erakargarria da marigorrientzat (*Coccinella septempunctata*), landarearen bizkarroi izaten diren landare-zorriez elikatzeke bisitatzen baitute.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Sustrai-estraktua kosmetikan erabiltzen da, mikrobioen aurka eta toniko gisa.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Erraz hazten da, eta hilabeterik beroenetan toki freskoa baino ez du behar.

Informazio
gehiago:

<https://www.ehu.eus/documents/1686888/3913390/20.+Potentilla+erecta.pdf>
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/06_087_11%20Potentilla.pdf
<https://www.floravascular.com/index.php?spp=Potentilla%20erecta>
<https://www.gbif.org/es/species/5365576>
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12284>
https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Potentilla_erecta.htm

Prunus spinosa

Euskara: Elorri Beltza, basaran
Gaztelania: Endrino

Familia: *Rosaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: kezka txikikoa
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka-landare hostogalkorra; azal arre edo ilun eta distiratsuko adar ugari ditu, eta adaxka ageri, labur eta arantzatsuak. **Hostoak** obobatuak edo ia eliptikoak dira; gainaldea glabreszentea edo pubeszentea du, eta azpialdea, berriz, oso argia eta pubeszentea. **Loreak** goiztiarrak dira, eta bakarti edo talde txikitan agertzen dira; korola ertz osoko 5 petalo zuri obobatu eta oblongok osatzen dute. **Fruitua** globo-itxurako drupa urdin ilun bat da, pulpa berdexkakoa, pruinaduna (azalean argizarizko geruza bat duela) eta hezurtxoduna. Nagusiki 500 eta 1.700 m artean agertzen da, baina ez da arraroa, ezta ere, beherago aurkitzea. Otsailetik maiatzera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Landare hau jaten du *Aporia crataegi* (elorri zuriko tximeleta) tximeletak, zeina iparraldeko elorri zuriaren loreez ere elikatzen baita. *Eriogaster catax* eta *Iphiclydes feisthamelii* (lirio-tximeleta) tximeletek ere jaten dute.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Haren fruituekin, patxaran ospetsua egiten da. Gordinak jan daitezke fruituak, baina zapore latza eta garratza dute, nahiz eta hori arindu egiten den lehenengo izotzaldien ondoren.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Zuhaixka hau elordi, heskai eta baso-ingurukietan egoten da (oso interesgarria hegaztientzat), nahiz eta sakabanatuta ere ager daitekeen ezponda, bide-ertz eta urertzetan.

Zuhaitz apaingarri gisa ere erabiltzen da, eta fruituak aprobetxatzeko hazten da (basarana edo patxarana).

Informazio
gehiago:

[https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/Prunus spinosa tcm30-200487.pdf](https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/Prunus%20spinoso%20tcm30-200487.pdf)
[https://www.navarra.es/mapacultivos/htm/sp_prunus spinosa.htm](https://www.navarra.es/mapacultivos/htm/sp_prunus_spinoso.htm)
<https://identify.plantnet.org/es/k-world-flora/species/Prunus%20spinoso%20L./data>
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12205>

Primula veris

Euskara: San Jose lorea, Udaberri lorea
Gaztelania: Primavera, hierba de San Pablo
Familia: *Primulaceae*
mayor

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da; **hostoak** erroseta basal batean agertzen dira, eliptikoak dira, gainazal zimurtsukoak eta azpialde iletukoak. **Loreek** pedizelo luze bat dute, kanpai-formako kalizarekin eta hiruki-formako bost hortzekin. Kalizak baino hodi luzeagoa du korolak; bost lobulu ditu, eta haietako bakoitzak pitzadura bat du erdian, horia edo hori argia. **Fruitua** kapsula ia zilindrikoa da, eta hazi ugari ditu.

Oso lur hezeetan egoten da; besteak beste, basoak, ibaiertzak eta haltzadiak.

Martxotik apirilera loratzen da.



BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Tximeleta-espezie batek baino gehiagok erabiltzen dute elikatzeke; adibidez, *Gonepteryx cleopatra* eta *G. rhamni* limoiek, aurorak (*Anthocharis cardamine*), aza-tximeleta marrasendoak (*Pieris napi*) eta *Iphiclides podalirius* espezieak, baita erle eta erlastar batzuek ere. Halaber, landare honetaz elikatzen da, beste primulazea-espezie batzuen artean, *Hamaeris lucina* (ostoiska-tximeleta) ere.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Haren herri-izenetako batzuek erakusten duten bezala, udaberriaren hasierarekin lotzen da, martxoan eta apirilean loratzen baita.

Haren hosto beratzak barazki gisa kontsumitu izan dira, gordinak edo egosiak, penintsularen iparraldeko herri batzuetan eta Huescako eta Arabako zenbait eskualdetan.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Asko erabiltzen da apaingarri gisa baratze eta lorategietan, loreak oso ikusgarriak baitira. Lorezaintzako barietate ugari daude.

Informazio
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16045>
<https://zientzia.eus/artikuluak/udaberriari-berririo-san-jose-lorea/es/>
<https://spain.inaturalist.org/taxa/55840-Primula-elatior>
https://www.euskadi.eus/documentacion/mariposas_diurnas/es_def/adjuntos/Libro-Castellano.pdf

Rosa canina

Euskara: Basarroza

Gaztelania: Escaramujo, rosal silvestre

Familia: *Rosaceae*

Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)

139/2011 ED: -

Habitaten Zuzentzaraua: -

Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Xirmendu-antzeko zuhaixka bat da, eta zurtoinetan arantza gogorrak ditu. **Hostoak** konposatuak dira, foliolodunak, obatuak edo eliptikoak, glabroak bi aldeetatik, berde biziak eta ertz zerradunekoak. **Loreak** zuriak edo arrosak dira; petaloek punta muxarratua dute. **Fruituak** oboideak eta gorriak dira.

Ez du lurzoru mota jakin bat nahiago, baina, ahal dela, ondo drainatuta eta zertxobait hezeak, emankorrak eta pH neutrokoak izan daitezela.

Sasi arantzatsuetan egoten da (nagusiki estai menditarrekoetan), baita eskualde mediterraneo hezeetan ere, 500 eta 1.600 m artean.

Otsailetik ekainera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Episyrphus balteatus espezieak bisitatzen du arrosa hau.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Haren fruituak limoi batek baino 10-50 bider C bitamina gehiago du; hori dela eta, Ingalaterran, II. Mundu Gerran, arkakarats-jarabe bat erabiltzen zen, bitamina horren osagarri gisa.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Espezie egokia da sasi arantzatsuak ingurumenean leheneratzeko eta mantentze txikiko lorezaintzan erabiltzeko, heskai arantzatsu gisa. Gainera, eskakizun gutxiko landare bat da.

Informazio
gehiago:

<https://spain.inaturalist.org/taxa/55884-Rosa-canina>

<https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/8028>

<http://www.carex.cat/es/vivers-carex/catalogo/rosa-canina-.aspx>

Sambucus nigra

Euskara: Intsusa, sabuka

Gaztelania: Saúco, sabuco

Familia: *Caprifoliaceae*

Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC). *Palmensis* azpiespeziea Arrisku larrian (CR) kategorian dago.

139/2011 ED: CEEA (*palmensis* azpiespeziea)

Habitaten Zuzentaraua: II, IV (*palmensis* azpiespeziea)

Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka hostogalkorra da, oinarritik adarkatua; adar zuzenak edo okertuak ditu, adaburu zabal eta biribila; azala arre-grisaxka da, garatxoduna heldutan, bihotz zuriarekin. **Hostoak** aurkakoak, konposatuak eta inparipinatuak dira. **Loreek** korinbo-formako infloreszentzia osatzen dute; lore pentamero ugari ditu, zuriak eta krema-kolorekoak. **Fruitua** drupa esferoidal bat da, more-belzkara, eta talde esekietan agertzen da.

Lurzoru hezeetan egoten da, nagusiki basoetako soilguneetan, komunitate belarkaretan, urertzetan eta ibar-basoetan, eta Otik 1.200 m-ra baino gehiagora bitartean.

Apiriletik uztaileira loratzen da, eta uztailean eta abuztuan ematen du fruitua.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erleek asko bisitatzen dute espezie honen infloreszentzia.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Infloreszentziarekin, kauserak egiten dira, eta, azukrea botata gozatu ondoren, azkenburuko gisa edo bigarren plateren osagarri gisa hartzen dira. Fruitu helduekin, marmeladak eta konfiturak egin daitezke. Gai horri buruz egindako ikerketen arabera, haren loreen lurrina gainean agertzen zaizkion onddo eta bakterioen menpe dago.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lore lurrintsu asko ateratzen zaizkionez eta fruitu ugari ematen dituenaz, ubideen mugak edo ertzak bereizteko heskai gisa erabil daiteke. Txoriei asko gustatzen zaizkie fruituak.

Informazio
gehiago:

https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/iect_sambucus_nigra_tcm30-164115.pdf

https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/141_tcm30-99045.pdf

http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/15_155_03_Sambucus.pdf

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11293>

<https://www.nature.com/articles/srep06727>

Saponaria officinalis

Euskara: Xaboi-belar sendakari
Gaztelania: Jabonera, sabonera

Familia: *Caryophyllaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, zertxobait esekia, sustrai zurkara eta glabrokoa. **Hosto** lantzeolatuak ditu, nerbio paraleloekin. **Loreak** tutu-formakoak dira, eta hermafroditak eta aktinomorfoak; zima terminal gisako infloreszentzian agertzen dira; loreek bost petalo dituzte, obobatuak, zuriak edo arrosak. **Fruituak** kapsula zilindriko bat osatzen du, eta lau hortzetatik irekitzen da. Haietatik sakabanatzen dira **hazi** erreniformeak, konprimatuak eta tuberkulatuak.

Lur hezeetan egoten da, iturri edo ur-lasterren ondoan, substratu mugitu eta hareatsuetan, 1.600 m-raino.

Maiatzetik irailera loratzen da

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Gaueko tximeleten espezie batzuek eta erle eta liztorrek bisitatzen dute espezie hau, eta polinizatzen laguntzen diote.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Tradizioz, eta haren izen latindarrak gogorarazten digun bezala, xaboiaren ordezkio gisa erabili da, gorputza, ilea edo jantziak garbitzeko.

Toxiko samarra den arren, farmakologikoki frogatuta geratu da haren sustraia analgesikoa, antiseptikoa, espektoratzailea eta hipokolesterolemikoa dela.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Egokia da loreontzietarako apaingarri gisa, loreak ikusgarriak baitira. Halaber, apaingarri gisa erabiltzen da lorategi batzuetan.

Informazio
gehiago:

https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Saponaria_officinalis.htm
<https://identify.plantnet.org/es/k-world-flora/species/Saponaria%20officinalis%20L./data>
<https://www.floravascular.com/index.php?spp=Saponaria%20officinalis>

Sedum acre

Euskara: Teilatu-belar

Gaztelania: Granos de arroz, pampajarito, pimienta de muros Familia: *Crassulaceae*

Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)

139/2011 ED: -

Habitaten Zuzentzaraua: -

Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, mamitsua, glabroa, zurtoin antzu eseki ugarikoa; zurtoin horiek lurrean barrena banatzen dira, tapizak osatuz. **Hostoak** oboideak dira. **Loreek** bost petalo lantzeolatu dituzte, hori biziak, eta hamar lorezil, antera horikoak; korinbo terminaletan multzokatzen dira. **Fruitua** bost folikuluko multzo bat da; folikulu horiek izar-forman irekitzen dira.

Espezieari berdin zaio substratua, eta arroka eta lur elkorretan egoten da, 2.500 m-raino. Apiriletik irailera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Parnassius apollo (apoloa) tximeleta-espeziea *Sedum* generoko zenbait espeziez elikatzen da.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Genero honetako espezie guztiak bezala, ondo egokituta daude lehorter-aldietara, ura gorde baitezakete hosto haragitsuetan. Temperatura hotzekiko erresistenteak ere badira.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Tapizak osatzen ditu, eta, espeziea loratzen denean, oso deigarriak dira, haren infloreszentzien hori biziagatik.

Egokia da mantentze txikiko lorezaintzarako, eremu lehor eta eguzkitsuetan, ureztaketarik gabe, sakontasun txikiko lurzoruekin, harri-hondarretan, ezponda-horma harritsuetan, jardineretan, loreontzietan, etab.

Interes berezia du estaldura ekologikoetan eta teilatuetan, tapiz lodiak eratzeko; areago, euskaraz, *teilatu-belar* esaten zaio.

Informazio
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/23>

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/10028>


<http://www.carex.cat/es/vivers-carex/catalogo/sedum-acre-.aspx>

Serapias lingua

Euskara: -
Gaztelania: Gallos

Familia: *Orchidaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Sendotasun belarkarako orkidea iraunkor deigarria. **Zurtoinak** berdexkak dira, eta batzuetan, marra gorrixkak dituzte behealdean; tenteak dira, eta, oinarrian, tuberkulu oboideak edo globotixurakoak dituzte lur azpian. **Hostoak** txandakakoak, berdeak eta orbanik gabeak dira; helikoidalki kokatuta daude, eta forma lineala edo lantzeolatua dute.

Loreak infloreszentzia tente batean biltzen dira; braktea zorroratzaileak dituzte, purpura morexkak, baina ukitu berdexkekin, eta nerbioak markatuagoak dituzte; loreak bezain luzeak edo haiek baino luzeagoak dira.

Aldeetako petaloak sepaloak baino zertxobait laburragoak dira, eta purpurak dira; labeloa gorrixka edo gaztaina-kolorekoa da, eta oinarrian zatituta ez dagoen maskur distiratsu bat du. **Fruitua** kapsula bat da.

Larre eta sasitza irekietan hazten da, lurzoru silizeoetan, larredi hezeetan, sasitza altuetan eta argi nahikoa duten baso argitsueta, itsas mailatik 1.000 m-raino.

Apiriletik ekainera loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Genero honetako orkideak ez dira oso selektiboak polinizatzen dituzten intsektuei dagokienez; hori dela eta, erleak, kakalardoak eta beste intsektu batzuk bisitatzen dituzte.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Espezie honen izena erdiko labeloaren mihi-formari zor zaio; tutu-moduko bat osatzen du, eta intsektuak erakartzeko balio du, hotzetik babesten laguntzen baitie.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Oso orkidea deigarria da eta, lurra pitzatzen ez bada, berriro agertzen da urtero, udaberrian; hortaz, egokia da lorategietan erabiltzeko. Talde deigarrietan agertu ohi dira, eta oso erakargarriak dira, lore ikusgarriak dituztelako.

Informazio
gehiago:

<https://argazki.irekia.euskadi.eus/eu/search/10965/photos/16415>
<https://fotolector.diariovasco.com/2022/orquideas-silvestres-202207161728.html>
<https://spain.inaturalist.org/taxa/203000-Serapias-lingua>
<https://www.floravascular.com/index.php?spp=Serapias%20lingua>
https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Serapias_lingua.htm
<https://www.orquideasibericas.info/especie/serapiaslingua>

Taraxacum officinale

Euskara: Txikori-belar

Gaztelania: Diente de león, Diente de dragón

Familia: *Compositae (Asteraceae)*


Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)

139/2011 ED: -

Habitaten Zuzentzaraua: -

Euskadi: -



Informazio
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/35096>

<https://www.ehu.eus/documents/1686888/3913390/60.+Taraxacum+officinale.pdf>

<file:///C:/Users/jmblanco/AppData/Local/Temp/MicrosoftEdgeDownloads/52aae781-0a3a-4e44-9e13-85d00873adb3/UWLGBI7314.pdf>

https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/iect_taraxacum_officinale_tcm30-164137.pdf

ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da; errizoma bertikal labur bat du, eta sustrai lodi baten bidez luzatzen da. Urtero, hosto-erroseta bat edo gehiago ematen ditu, lurzoru-mailan, eta bakoitzak **infloreszentzia** (kapitulu) bat du. Landare osoak latex zuria du. **Hostoak** txandakakoak eta luzangak dira, eta ez dute peziolo bereizirik. **Lore** guztiak hermafroditak dira, eta mihi-formako korola horia dute (ligulak). Akenio arreak ditu (**fruituak**), kardilaun eta guzti (fruitua sakabanatzeko balio duen ile-mototsa). Belardietan egoten da, gehiago edo gutxiago zapaldutako eta nitrifikatutako lurzoru hezeetan, bide-ertzean eta lorategiko soropilean, 0 eta 1.800 m artean.

Otsailetik azarora loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Ontzat jotzen da landare ezti-emaile gisa, batez ere udaberriaren hasieran, oso goiz loratzen baita. Erleei asko gustatzen zaie.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Ez da arraroa barazki gisa kontsumitzea. Landare honen zatirik gustukoenak hostoak dira, eskuarki entsaladan edo egosita kontsumitzen baitira. Eguraldia iragartzeko erabiltzen dira kapituluak, euria egitera doanean itxi egiten baitira.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Haren infloreszentzia deigarriak edozein lorategitan nabarmentzen dira, bai handiak direlako, bai hori biziak direlako.

Trifolium fragiferum

Euskara: Hirusta

Gaztelania: Trébol fresa

Familia: *Fabaceae (Leguminosae)*


Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)

139/2011 ED: -

Habitaten Zuzentzaraua: -

Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da; zurtoinak dekunbenteak dira, eta adabegietan sustraitzen dira. **Hostoak** trifoliatuak dira, eta folioloak obobatuak edo eliptikoak izan daitezke. **Loreak** arrosak dira; braktea bat dute oinarrian, eta globo-itxurako lore-buruaren forma duen infloreszentzia osatzen dute. Oso ondo onartzen ditu hezetasun edafiko handiko lurrak eta uholde luzeak.

Maiatzetik urrira loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Bere loreen nektar gozoagatik, landare ezti-emaile bikaina da; izan ere, lur hezeetan eta ondo ongarritueta, luzaroan loratzen da, udaberriaren hasieratik udazkenara.

Leguminosoak *Bombus* generoko himenopteroen zenbait espeziek polinizatzen dituzte, baita *Anthophoridae* familiako erle bakartien espezie batzuek ere; besteak beste, *Anthophora*, *Eucera* eta *Xylocopa*.

Elikatzeko erabiltzen dute *Colias croceus* (kolia) tximeletak eta *Cyaniris semiargus* (urdiniluna) espezieak.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Ustez, ugaztunentzat onuragarria da hirusta kontsumitzea, nola bazka gisa hala larre gisa, esne gehiago ekoizten dutelako.

Bazka-landare gisa erabiltzen da hirusta, baita artzaintzan ere; bazkaleku horietan, gramineoak ere badaude, eta haiei nitrogeno ugari ematen die hirustak.

APAINGARRI GISA ERABILTZEAK

Haren infloreszentzia arrosa deigarria dela eta, egokia da soropil-unadak dituzten lorategietarako.

Informazio
gehiago:

https://www.unavarra.es/herbario/pratenses/htm/Trif_frag_p.htm
http://www.guiavisual-gorosti.org/galeria/details.php?image_id=9523&sessionId=qb9gdt6dktjb1i12jlcnr9am3
<https://www.gbif.org/species/5358935>
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11729>
<http://www1.euskadi.net/Harluxet/hiztegia.asp?sarrera=hirusta>
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11729>
<https://wastemagazine.es/trifoliumfragiferum.htm>

Ulex europaeus

Euskara: Otalore, otea
Gaztelania: Tojo, argoma.

Familia: *Fabaceae (Leguminosae)*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka zurrak eta oso arantzatsua da, oso adarkatua eta nahaspilatua; adar berde ilunak ditu. Berez, ez dago **hostorik**, landare helduek hiruki-formako filodioak (azikula arantzatsuak) baitituzte hostoen orde. **Lore** horiak hostoen axiletan ateratzen dira. Kaliza elkarrengandik oso bereizita dauden bi ezpainek osatzen dute. **Fruituak** lekaleak dira, hasiera batean berdeak eta pubeszentek, baina beltz bihurtzen dira helduekin. Lur azido edo kareharrizko deskarbonatuetan agertzen da, eta ingurune-hezetasuna eta argia behar ditu. Itsasoaren eraginpeko klima euritsuetan agertzen da, labore-lurretan, sastraketan, berdegune antropizatuak, etab.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Leguminosoak *Bombus* generoko himenopteroen zenbait espeziek polinizatzen dituzte, baita *Anthophoridae* familiako erle bakartien espezie batzuek ere; besteak beste, *Anthophora*, *Eucera* eta *Xylocopa*. Euskadin oso zabalduta dagoen *Lampides boeticus* (leka-izartxo nagusia) tximeleta-espeziea elikatzeko ere balio du.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Pirototoa da: bizkor birstortzen da suteen ondoren (sustraiak ernaberritzen delako eta ezkutuko haziak erretzen direlako).

Haziak, alkaloideetan aberatsak, toxikoak izan daitezke. Hazi horiek naturalki sakabanatzen dira, eta sorburuko landaretik 5 metrora jaurtitzen dira; haizeak eta urak ere sakabana ditzakete, baita inurriek ere.

Kanarietan, espezie inbaditzailea da, eta, dirudienek, ustekabeen sartu zen, pinuekin egindako basoberritzeen ondorioz.

APAINGARRI GISA ERABILTzea

Haren lore horiak ederrak direnez eta osatzen dituzten heskaiak zeharkaezinak direnez, egokiak dira lurak mugatzeko.

Informazio
gehiago:

<https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/conservacion-de-especies/ulexeuropaeus/tcm30-439738.pdf>
https://www.navarra.es/mapacultivos/htm/sp_ulex_europaeus.htm
http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/07_18%20Ulex.pdf
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16222>

Veronica beccabunga

Euskara: Berroa
Gaztelania: Berraza, berro silvestre

Familia: *Scrophulariaceae*
(*Plantaginaceae*)

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa (LC)
139/2011 ED: -
Habitaten Zuzentzaraua: -
Euskadi: -



ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra; zurtoinak sustraitzaileak dira behealdean, eta, gero, gorakoak. **Hostoak** obatuak, horzdunak edo oxkardunak dira, eta pezioloa dute. **Loreak** luku gisa agertzen dira axiletatik zintzilik; lau petalo dituzte, eta urdin biziak dira. **Fruitua** kapsula gisa ateratzen da, zertxobait konprimatua.

Leku istilduetan edo ibaien ondoan bizi da, 2.100 m-raino.

Otsaletik urrira loratzen da.

BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezie hau bisitatzen duten polinizatzaileen artean, erleak, erlastarrak eta tximeletak daude.

ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Kimu eta hosto beratzak Arabako edo Bizkaiko lurralde batzuetan kontsumitu dira. Eskuarki, entsaladan jaten dira, olioarekin, gatzarekin eta ozpinarekin onduta. *Fasciola hepatica* eta beste bizkarroi batzuekin ez kutsatzeko, iturburu eta ur-iturri garbietan bildu behar da landarea, eta, minutu batzuez, uretan garbitu, edo, bestela, uretan utzi, ura desinfektatzeko egokia den libibaren tanta batzuk botata.

APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Loreak apaingarriak dira iturrietan eta istiltzeko joera duten eremuetan erabiltzeko.



Informazio
gehiago:

https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/ict_2018_tomo3web_tcm30-448314.pdf
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/4091425>
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/observaciones/buscar/?hightaxon=7:12443&ubicacion=2>

TERMINOEN GLOSARIOA

Terminoak	Esanahia
<i>Aktinomorfitiko</i>	Simetria erradialeko plano batean banatzen diren landarearen organo edo zatiei aplikatzen zaie.
<i>Afilo</i>	Hostorik gabea.
<i>Antera</i>	Lorezilaren goiko zatia, batzuetan konkortuagoa; polena jasotzen du
<i>Akenio</i>	Fruitu lehorra, monospermoa eta indehizsentea, <i>Compositae</i> familiakoak bezala (<i>cipsela</i> ere esaten zaio).
<i>Babes-maila</i>	Europako Zerrenda Gorria: IUCNren zerrenda gorrian jasotzen duen kategoria. 139/2011 ED: espeziea Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartuta dagoen ala ez adierazten da. Habitaten Zuzentzaraua: espeziea 92/43/EEE Zuzentzarauaren eranskinen batean dagoen ala ez islatzen da. Euskadi: espeziea Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dagoen ala ez adierazten da (Euskal Herriko Natura Babesteko 16/94 Legearen bidez sortu zen katalogoa).
<i>Bertizilastro</i>	Elkarrengandik oso hurbil dauden loreen multzoa; esaterako, ezpaindunak, zeinak bertizilotan multzokatzen direla ematen baitu.
<i>Braktea</i>	Zenbait landareren kandutik sortzen den hostoa; eskuarki, formagatik, sendotasunagatik edo koloreagatik bereizi ohi da benetako hosto batetik. Brakteen funtzio nagusia loreak babestea da, eta, horrela, landarearen ugalketa ziurtatzen da.
<i>Dekunbente</i>	Lurzoruan zabaldutako zurtoina, sustraitu gabea.
<i>Dekurrente</i>	Hosto eseriak; haien linboa beherantz luzatzen da zurtoinean soldatuta, eta gandar-moduko bat osatzen dute.
<i>Eleosoma</i>	Haziaren kanpoaldean kokatutako substantzia nutritiboen erreserba (normalean, olioena).
<i>Erraboil</i>	Organo baten zati basal loditua. Lur azpiko organoa; oso ardatz laburra du, eta haren katafiloak edo hosto-oinarriak erreserba-organo bihurtzen dira. Perretxikoetan, oinaren zati basal loditua.
<i>Errekurbatu</i>	Hutsunea kanpoaldean edo behealdean geratzeko moduan kurbatua.
<i>Errezeptakulu</i>	Lore zatiak txertatuta dauden tokia; askotan, fruitua eratzen laguntzen du.
<i>Errizoma</i>	Lur azpiko zurtoina; haren bidez, landareak sustraiak eta kimu belarkarak sortzen ditu. Mantenu gaien erreserba-organoak dira.
<i>Eskarioso</i>	Mintzezko sendotasuna duena, lehor eta zurrun samarra eta, oro har, gardena.
<i>Estigma</i>	Polena atxikitzen duen pistiloaren zati apikala.
<i>Estilo</i>	Angiospermoetako ginezeoko obulutegiaren goiko zatia; filiforme samarra da, eta estigma bat edo gehiago hartzen ditu.
<i>Estipula</i>	Zenbait hostotako pezioloaren oinarrian kokatutako egitura laminarrak, zenbaitetan glandulak edo arantzak.
<i>Estoloi</i>	Lurzoruarekiko paralelo hazten den eta tarteka sustraitzen den zurtoina.
<i>Flora</i>	Leku jakin batean bizi diren landareen multzoa.
<i>Folikulu</i>	Karpelo bakarretik sortutako fruitu lehorra (karpelobakarra), hazi bat baino gehiagokoa; haziak askatzeko irekitzen denean, luzetara zatitzen da, haustura-eremu bakarrean, sabelaldeko eremu izenekoa.
<i>Gara</i>	Hostorik gabeko zurtoina; muturrean, lorea edo infloreszentzia du.

Terminoak	Esanahia
<i>Hazi</i>	Landare-egitura; hor, enbrioia bizi-egoera latentean dago, mantenehunez lagunduta ala ez, eta estalkiz babestuta. Hazi-hasikinetik dator, eta, angiospermoetan, fruitu baten barruan dago.
<i>Hegal</i>	Edozein organoren gainazaleko dilatazio laminarra.
<i>Hermafrodita</i>	Ugalketa-organo eme eta ar funtzionalak dituen izaki biziduna.
<i>Hosto</i>	Zurtoinetik edo adarretatik sortzen den eta funtzio nagusi gisa fotosintesian sortutako karbohidratoak asimilatzea duen landare-organoa.
<i>Inparipinatu</i>	Errakiaren amaieran foliolo bat duen hosto konposatu eta pinatua.
<i>Infloreszentzia</i>	Loreek adarretan edo zurtoinarekin muturretan duten banaketa; hosto arrunt batek zehazten du haren muga, eta multzo trinko samarrak osatzen ditu zurtoinarekin muturretan.
<i>Intsektu</i>	Gorputz segmentatua (burua, toraxa eta abdomena) duen ornogabea. Sei hanka-pare ditu.
<i>Iraunkor</i>	Hiru urte edo gehiago bizitzen den landarea. Hostoak bi urtez baino gehiagoz mantentzea.
<i>Kapitulu</i>	Lore-buru edo infloreszentzia irekia edo luku gisakoa; infloreszentzia horretan, kandua zabaldu egiten da muturrean, eta disko lodi samar bat osatzen du; haren gainean jartzen dira lore eseriak (pedizelarik gabeak).
<i>Kamuts</i>	Puntan amaitzen ez dena.
<i>Kandu</i>	Hostoa, lorea edo fruitua zurtoinarekin lotzen duen txortena.
<i>Kardilaun</i>	Fruituaren goiko aldean agertzen diren eta sakabanatzen eta sorburuko landaretik urruntzen laguntzen dioten ile soil edo lumatsuen, zurden edo ezkatzen multzoa.
<i>Karpelo</i>	Hosto aldatuak dira, eta, zenbait espezieetan (angiospermoak), lorearen ugalketa-zati emea da.
<i>Kaulinar</i>	Botanikan, zurtoinarekin edo zurtoinari buruzkoa. Hosto bati buruz ari bagara, hosto kaulinarrak zurtoinetik zuzenean sortzen dira.
<i>Korinbo</i>	Infloreszentzia honetan, loreak altuera desberdinetan kokatzen dira ardatzean; pedizeloak hain luzeak dira, ezen loreen multzoak gainazal lau, ahur edo ganbil bat osatzen baitu.
<i>Kuneatu</i>	Oinarrian pixkanaka estutzen den hostoa
<i>Lore</i>	Goiko landareetako sexu-organoen eta haiek babesten dituzten bilgarrien (kaliza eta korola) multzoa.
<i>Lorezil</i>	Angiospermoen loreko androzeo edo organo arra osatzen duten eta gutxienez polen-zakuak dituzten elementu filiformeetako bakoitza.
<i>Loraketa</i>	Landare baten ugaltze-faseari hasiera ematen dion prozesua. Prozesu horren arrakasta gertatzen den unearen arabera da; uneak egokiena izan behar du garatze-prozesuaren barruan, eta une horretan ingurumen-baldintzek ezin hobeak izan behar dute.
<i>Lantzeolatu</i>	Lantza-formakoa, estuki eliptikoa eta punta-formako muturrak dituen.
<i>Ligula</i>	Konposatuen kapituluetan, periferiako edo infloreszentzia osoko loreek dituzten koroletako bakoitza dira ligulak.
<i>Moztu</i>	Zeharkako plano batek ebaketa gisa errematatutako organoa.
<i>Nerbio</i>	Hosto baten edo beste organo hostokara batzuen laminan dauden bala baskularretako bakoitza.
<i>Obal</i>	Obalo edo elipse ez-oso eszentrikokoa.
<i>Obkordatu</i>	Bihotz-formako hostoa, alde zabala puntan duela.
<i>Oblantzeolatu</i>	Forma alderantziz lantzeolatua.
<i>Oblongo</i>	Organo luzanga, zabala baino luzeagoa.

Terminoak	Esanahia
<i>Orrri</i>	Hosto baten edo beste organo hostokara baten zati laminarra. Korola gamopetalo bateko hodiaren muturrean kokatutako petalo baten zati askea edo laminarra.
<i>Papirazeo</i>	Papiroaren edo paperaren antzekoa.
<i>Pedizelo</i>	Lore bakoitza infloreszentzia baten ardatzarekin lotzen duen txortena.
<i>Pentamero</i>	5 piezaz osatutako egitura edo bertiziloa. Lorearen kasuan, 5 petaloko korola eta 5 sepaloko kaliza dituena.
<i>Perianto</i>	Lorearen zati emankorrak inguratzen dituzten pieza antzuen multzoa (sepalok, petalok edo tepalok).
<i>Perikarpo</i>	Hazia estaltzen duen fruituaren zatia, obulutegi ernaldu batetik abiatuta eratua.
<i>Polinizazio</i>	Polena anteretatik estigmara eramaten duen prozesua; estigman, ernalketa gertatzen da, eta, ondorioz, fruitua agertzen da. Askotan, intsektuek gauzatzen dute prozesua.
<i>Pomo</i>	Fruitu haragitsua, indehiszentea, obulutegi infero eta sinkarpiko batetik datorrena; haren erdiko zatia, benetako fruitua, larrukara da (adibidez, sagarra, irasagarra, etab.).
<i>Pubeszente</i>	Illetsua
<i>Silizikola</i>	Silize askoko lurzoruetan bizi den edo hala bizitzea nahiago duen landarea.
<i>Tuberibulbo</i>	Hosto-oinarriak azkenean soldatuta geratu eta masa trinko bat osatzean sortzen den erraboil mota.
<i>Tutu</i>	Kaliza eta korola batzuen beheko alde soldatua.
<i>Uhindu</i>	Uhinak sortzen dituena.
<i>Zauri-belar</i>	Zauriak sendatzeko balio duena.
<i>Zigomorfiko</i>	Aldebiko simetriako plano batean banatzen diren landarearen organo edo zatiei aplikatzen zaie.
<i>Zima</i>	Infloreszentzia-mota; ardatzeko lore terminala irekitzen da lehenik, eta gainerakoak alboetan garatzen dira.
<i>Zirtzinatu</i>	Puntatik oinarriaraino kiribildutako organoa, makulu-itxurakoa; hostoa zeharka kiribiltzen da neguan.
<i>Zorroratzaile</i>	Zurtoina erabat inguratzen duen oinarria duen hostoaz esaten da.

BIBLIOGRAFIA

Erreferentzia	
Atlas y libro rojo de la flora vascular amenazada de España. Adenda 2008. Ángel BAÑARES BAUDET, Gabriel BLANCA, Jaime GÜEMES, Juan Carlos MORENO SAIZ y Santiago ORTIZ. Tragsatec.	https://www.conservacionvegetal.org/wp-content/uploads/publicaciones/AFA_Adenda2008_Lite.pdf
Cuaderno de campo de una vida silvestre	https://gastronomia360.bculinary.com/cuaderno-de-campo-de-un-dia-silvestre/
Diagnóstico de la biodiversidad en el municipio de Bilbao. Cátedra UNESCO sobre desarrollo sostenible y educación ambiental de la UPV/EHU. 2017.	https://biobilbao.bilbao.eus/wp-content/uploads/2018/02/Diagnostico-Biodiversidad-Bilbao.pdf
Diccionario Labayru. Gobierno Vasco. Diputación Foral de Bizkaia.	https://hiztegia.labayru.eus
Glosario botánico, CSIC	https://www.rjb.csic.es/jardinbotanico/ficheros/documentos/pdf/didactica/GlosarioAmpliado.pdf
Guía de los polinizadores más comunes de las zonas verdes de Madrid. Ruth Escobés y Clara Vignolo. CSIC.	http://www.rjb.csic.es/jardinbotanico/ficheros/documentos/pdf/didactica/guia_polinizadores_madrid_09_10_18.pdf
Herbario de la Universidad Pública de Navarra	https://www.unavarra.es/herbario/pratenses/html/glosario_bot.htm
Herbarium	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/index.htm
Inventario español de los conocimientos tradicionales relativos a la biodiversidad. Manuel Pardo de Santayana, Ramón Morales, Javier Tardío y María Molina. Ministerio de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio Ambiente.	https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/pbl_lect_tcm30-164090.pdf
Inventario español de los conocimientos tradicionales relativos a la biodiversidad agrícola. Editores: Javier Tardío, Manuel Pardo de Santayana, Almudena Lázaro, Laura Aceituno y María Molina. Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación.	https://www.mapa.gob.es/images/es/tardio_eta2_022_lectbavol2_tcm30-640207.pdf
Mariposas diurnas de Euskadi. Yeray Monasterio León y Ruth Escobés Jiménez. Gobierno Vasco y Asociación Zerynthia.	https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/mariposas_diurnas/es_def/adjuntos/Libro-Castellano.pdf
Plantas Medicinales, el Dioscórides Renovado. Pío Font Quer. Ediciones Península, 2017.	
Polinizadores y biodiversidad. Asociación española de Entomología, Jardín Botánico Atlántico y Centro Iberoamericano de la Biodiversidad.	https://apolo.entomologica.es/cont/materiales/informe_tecnico.pdf
Proyecto Apolo:	https://apolo.entomologica.es/index.php
The IUCN Red List,	https://www.iucnredlist.org/es#:~:text=Divide%20especies%20en%20nueve%20categor%C3%ADas,el%20Estado%20Silvestre%20y%20Extinto.

ARGAZKIEN KREDITUAK

Deskribapena	Egileak
Azala	'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola'
Koleopteroa, himenopteroa (4. or.)	'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola'
Lepidopteroa (5. or.)	'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola'
Dipteroa (5. or.)	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Cistus_salviifolius.htm
Bilboren ikuspegia (5. or.)	'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/MIKEL ARRAZOLA'
<i>Anemone nemorosa</i>	Ondoan
<i>Bellis perennis</i>	Ondoan
<i>Cistus salviifolius</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Cistus_salviifolius.htm
<i>Colchicum autumnale</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Colchicum_autumnale.htm
<i>Clematis vitalba</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Clematis_vitalba.htm
<i>Crataegus monogyna</i>	Ondoan
<i>Digitalis purpurea</i>	Ondoan
<i>Erica vagans</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Erica_vagans.htm
<i>Ficaria verna</i>	Ondoan https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Ficaria_verna.htm
<i>Fragaria vesca</i>	Ondoan
<i>Iris pseudacorus</i>	https://wastemagazine.es/irispseudacorus.htm https://spain.inaturalist.org/photos/132791736
<i>Lonicera periclymenum</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Lonicera_periclymenum.htm
<i>Mentha pulegium</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Mentha_pulegium.htm
<i>Oxalis acetosella</i>	Ondoan https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Oxalis_acetosella.htm
<i>Papaver rhoeas</i>	Ondoan
<i>Potentilla erecta</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Potentilla_erecta.htm
<i>Primula veris</i>	Ondoan
<i>Prunus spinosa</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Prunus_spinosa.htm
<i>Rosa canina</i>	Ondoan https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Rosa_canina.htm
<i>Sambucus nigra</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Sambucus_nigra.htm
<i>Saponaria officinalis</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Saponaria_officinalis.htm
<i>Sedum acre</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Sedum_acre.htm
<i>Serapias lingua</i>	Ondoan
<i>Taraxacum officinale</i>	Ondoan
<i>Trifolium fragiferum</i>	https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Trifolium_fragiferum.htm https://wastemagazine.es/trifoliumfragiferum.htm
<i>Ulex europaeus</i>	Saxifraga-Jan van der Straaten CC BY 4.0 Ondoan
<i>Veronica beccabunga</i>	http://floragon.ipe.csic.es/ficha.php?genero=Veronica&especie=beccabunga&subespecie=&variedad=